| | |
|---|---|
| **2016KO IRAILAREN 28AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 28 DE SEPTIEMBRE DE 2016.** |
| ============================ | ============================ |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Iñaki Amorrortu Martínez (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)

Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Eguneko gaiei hasiera eman aurretik, alkateak adierazi du Udalbatzari galdetuko diola gai zerrendan puntu berri bat sar dezakeen. Puntu berri hori ondorengoan datza: irailaren 26ko Bozeramaile Batzordeak hartutako erabakiaren berri ematea, emakume eta haurren esplotazioren eta trafikoaren aurkako nazioarteko egunari buruzkoa.

Antes de dar inicio al orden del día el Alcalde indica que se va a someter a la consideración de la corporación la incorporación de un nuevo punto en el orden del día consistente en la dación de cuenta del acuerdo de Junta de Portavoces del día 26 de septiembre relativa al día internacional contra la explotación y el tráfico de mujeres, niñas y niños.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**182.- 2016KO UZTAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**182.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA**

**27 DE JULIO DE 2016.**

2016ko uztailaren 27an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta onestea.

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 27 de julio de 2016.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**183.- NEREA GUIJARRUBIA GARCÍA ANDREAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA, EH BILDUN.**

**183.- TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJALA POR EH BILDU DE NEREA GUIJARRUBIA GARCÍA.**

Alkateak Nera Guijarrubia Garciari dei egin dio, eta bertaratu egin da Getxoko Udaleko zinegotzi kargua hartzeko.

El Alcalde llama a Nerea Guijarrubia García que se persona para tomar posesión del cargo de concejala del Ayuntamiento de Getxo.

Idazkari nagusiak jakinarazi duenez, ondasunen eta interesen aitorpena bete du, eta 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuan xedatutakoa beteko du, honako hau galdetuz:

El Secretario General informa que ha cumplimentado la declaración de bienes e intereses y procede a cumplimentar lo dispuesto en el Real Decreto de 5 de abril de 1.979, preguntando:

Zin dagizu, edo agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohorearen izenean, Getxoko udaleko zinegotzi arduraren eginbeharrak zintzoki beteko dituzula, Erregeari leial izanik, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuko funtsezko araua delako?

¿Jura o promete por su conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal del Ayuntamiento de Getxo con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?, a lo que Nerea Guijarrubia García contesta:

"Lege arrotzak hala aginduta hitza ematen dut eta Getxo eta Euskalherriko errepublika feminista euskalduna eta askearen alde lan egingo dudala agintzen diot herriari".

"Prometo por imperativo de una ley ajena. Prometo al pueblo que trabajaré en pro de la república de Euskal Herria, feminista, vasca y libre".

Alkateak ongietorria eman dio Udalbatza guztiaren izenean.

El Alcalde le da la bienvenida en nombre de toda la corporación.

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen

A continuación el Pleno a propuesta de

Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengo erabaki da:

1.- Udal txit argi honetako zinegotzi karguaz Nerea Guijarrubia García andrea jabearaztea, EH-BILDUkoa bera, udal talde horretara berera erantsita dagoela.

2.- Nerea Guijarrubia García andrea tokiko erakunde autonomoen artezkaritza kontseiluetan eta informazio batzorde hauetan sartuko da Arantza Gutierrez Paz andrearen ordez:

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen eta Ingurumenaren Informazio Batzordea: titular bezala.

Ogasun, Kontu, Ekonomia Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordea: titular bezala.

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordea: titular bezala.

Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzako tokiko erakunde autonomoaren Artekaritza Batzordea: titular bezala.

Kultur etxeko tokiko erakunde autonomoaren Artekaritza Batzordea: titular bezala.

Musika eskolako tokiko erakunde autonomoaren Artekaritza Batzordea: ordezko bezala.

Getxo Kirolak tokiko erakunde autonomoaren Artekaritza Batzordea: ordezko bezala.

la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, acuerda:

1.- Dar posesión del cargo de Concejala de este Ilustre Ayuntamiento a doña Nerea Guijarrubia García perteneciente a EH-BILDU, que se incorpora a dicho grupo municipal.

2.- Adscribir a doña Nerea Guijarrubia García a las siguientes Comisiones Informativas y Consejos Rectores de los Organismos Autónomos Locales en sustitución de doña Arantza Gutierrez Paz:

Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente: como titular.

Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara: como titular.

Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales: como titular.

Junta Rectora O.A.L. Residencia Municipal Sagrado Corazón de Jesús: como titular.

Junta Rectora O.A.L. Aula de Cultura: como titular.

Junta Rectora O.A.L. Escuela de Música: como sustituta.

Junta Rectora O.A.L. Getxo Kirolak: como sustituta.

**184.- ONDORENGO INFORMAZIO-BATZORDEAK OSAERAREN ALDETIK ALDARAZTEA, EH-BILDU UDAL TALDE POLITIKOARI DOAKIONEZ: LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUETAKOA, OGASUN, KONTU, EKONOMIA SUSTAPEN, GIZA BALIABIDE, GAZTERIA ETA EUSKARAKOA, ETA HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZU ETA INGURUMENEKOA.**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Ondorengo aipatzen diren informazio-batzorde iraunkorrak osaeraren aldetik aldarazteko proposamena, EH-Bildu udal talde politikoari doakionez, era honetara, hain zuzen:

**184.- MODIFICACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS DE PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES, HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA Y URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE, EN LO QUE AL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL EH BILDU SE REFIERE.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, por mayoría se acordó:

Modificar la composición de las Comisiones Informativas permantentes a continuación relacionadas, en lo que al grupo político municipal EH-BILDU se refiere, de la siguiente forma:

| **Udalburutzako eta Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordea<br>Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales:** | |
|---|---|
| **Titularrak / Titulares** | **Ordezkoak / Suplentes** |
| Ibon Rodriguez Larrinaga<br>Nerea Guijarrubia García<br>Oier Iturralde Fernandez | Maite Arraiza Aramendia |

| **Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordea<br>Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara** | |
|---|---|
| **Titularrak / Titulares** | **Ordezkoak / Suplentes** |
| Ibon Rodriguez Larrinaga<br>Nerea Guijarrubia García<br>Maite Arraiza Aramendia | Oier Iturralde Fernandez |

<table>
<tr><td colspan="2"><u>Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordea</u><br><u>Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente:</u></td></tr>
<tr><td><u>Titularrak / Titulares</u></td><td><u>Ordezkoak / Suplentes</u></td></tr>
<tr><td>Ibon Rodriguez Fernandez<br>Nerea Guijarrubia García<br>Maite Arraiza Aramendia</td><td>Oier Iturralde Fernandez</td></tr>
</table>

**<u>185.- "ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA" TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAREN ARTEKARITZA KONTSEILUAREN OSAERA ALDATZEA</u>**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

EH-BILDU udal-taldeari dagokinez, "ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA" tokiko erakunde autonomoaren artekaritza kontseiluaren osaera aldatzea. Ondorioz, talde horretako zinegotziei dagokienez, honela osatuta geratuko da kontseilua:

**<u>185.- MODIFICACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DEL CONSEJO RECTO DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL "ESCUELA DE MÚSICA ANDRÉS ISASI"</u>**

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, por mayoría se acordó:

Modificar la composición del Consejo Rector del Organismo Autónomo Local "ESCUELA DE MÚSICA ANDRÉS ISASI" en lo que al grupo municipal EH-BILDU se refiere quedando el mismo integrado en lo que a los concejales de ese grupo se refiere de la siguiente forma:

| **<u>Titularrak/Titulares</u>** | **<u>Ordezkoak/Suplentes</u>** |
|---|---|
| Maite Arraiza Aramendia<br>Ibon Rodriguez Larrinaga<br>Oier Iturralde Fernandez | Nerea Guijarrubia Garciía |

**<u>OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA</u>**

**<u>HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA</u>**

**<u>186.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA, TRANSFERENTZIEN BIDEZ</u>**

**<u>186.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN</u>**

**AURREKONTUAK ALDATZEARI BURUZKOAK.**

Proposamena irakurri ostean Santiago Sainzek hartu du hitza honako hau esateko: adierazitako kreditu transferentziak partiden gehikuntza interesgarriak direla, baina ez edozein prezioetan. Euskararen erabileran izandako gehikuntzari dagokionez, uste du diru publikoaren banaketa gaizki planifikatu dela, eta proposatutako euskarazko argitalpenen aldean beharrezkoagoak diren beste xede batzuk daudela, esate baterako, sozialak. Kritikatu du alor horretan euskara ikasteko laguntzaren partida % 83an egikaritu dela eta, hala izanik ere, EH Bilduren aldetik, hura handitu egin zela kontu elektoralista huts batengatik. Turismoa sustatzeko partida handitzen duen dekretuari dagokionez, beharrezkoagoak diren beste lehentasun batzuk daudela iritzi du, ekonomia sustapenari buruzkoak, adibidez.

Inazio Uriartek erantzun dio transferentzia horien edukia, euskararena zehazki, informazio batzordean azaldu zela, eta adierazi du ez dela erraza kalkulatzea zehatz-mehatz zenbat gastatu behar den; horregatik, behar handiagoa izanik, 11.640 euroko soberakina arlo beraren barneko gastu baterako erabili da. Enplegu partida baten 7.000 euroko transferentziari dagokionez, aipatu du turismoko euskarri grafikoetatik ondorioztatutako gastuak handitzeko baliatu den soberakina dela, handitu egin behar izan dena turismoko eskaera gehitu izanagatik.

Ibon Rodriguezek Ciudadanoseko zinegotziari erantzun dio ez al den ohartu hauteskundeak jadanik pasa

**PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Santiago Sainz para indicar que las transferencias de crédito indicadas son incrementos de partidas que son interesantes pero no a cualquier precio. Respecto al incremento de euskera cree que se ha dado una mala planificación del dinero público y hay otros fines más necesarios como los sociales frente a lo que se plantea que son publicaciones en materia de euskera. Critica que en ese ámbito la partida de ayuda al aprendizaje del euskera se ha ejecutado el 83% y pese a ello, por parte de EH Bildu, ésta fue incrementada por una cuestión electoralista. Respecto al decreto que incrementa la partida de promoción turística, estima que existen prioridades más necesarias como las dedicadas a la promoción económica.

Inazio Uriarte le contesta que el contenido de estas transferencias, concretamente la del euskera, se explicó en la comisión informativa indicando que no es fácil calcular con exactitud lo que se va a gastar y por eso habiendo mayor necesidad se ha destinado un sobrante de 11.640 euros a un gasto dentro de la misma área. Respecto a la transferencia de 7.000 euros de una partida de empleo, indica que es un sobrante que se traslada para incrementar los gastos derivados de los soportes gráficos de turismo, que han debido aumentarse por el incremento de la demanda turística.

Ibon Rodríguez recrimina al concejal de Ciudadanos no haberse enterado que las elecciones ya han pasado.

direla. Ciudadanosek euskarari buruz zer jarrera duen jakin badakiela esan du, eta EH Bilduk euskararen sustapena babesten jarraituko duela berretsi du, hori egitea beharrezkoa baita.

Manifiesta conocer la postura de Ciudadanos sobre el euskera y se ratifica en que EH Bildu seguirá apoyando la promoción del euskera porque es necesaria.

Santiago Sainzek argitu du Ogasun Batzordean azaldu zena *mintza lagun* taldeetarako erabiliko zela eta ez publizitateko eskuorrietarako. Turismoari dagokionez, kruzeroen terminalak hirira gehiago gerturatzeko ahalegin handiagoa egin beharko zela uste du. EH Bilduri esan dio Ciudadanosen euskararen aldeko jarrera argia dela, baita eskoletako hirueletasunaren aldekoa ere; osoko bilkuran aurkeztutako euskararen aldeko proposamenak gogora ekarri ditu. Aurrekontuan dagoeneko jasotako hasierako partida nahikoa zela uste du, eta ez zela beharrezkoa EH Bilduk egindako gehikuntza.

Santiago Sainz aclara que lo que se explicó en la comisión de Hacienda era que se iba a dedicar a grupos de *mintza lagun* y no a prospectos publicitarios. Respecto al turismo cree que habría que trabajar más en acercar la terminal de cruceros a la ciudad. A EH Bildu le indica que la postura de ciudadanos es clara a favor del euskera y del trilingüismo en las escuelas y recuerda propuestas a favor del euskera que ha presentado al Pleno. Cree que la partida inicial ya recogida en el presupuesto era suficiente y no era necesario el incremento que realizó EH Bildu.

Inazio Uriarteren ustez, transferentziaren zenbatekoa ikusirik gai horrek ez du halako garrantzirik, behar bezala izapidetuta dago eta euskarazko 11.640 euroak ez dira publizitatuko, *mintza-talderako* baizik.

Inzio Uriarte opina que es un tema menor por la cuantía de la transferencia y que está tramitada de manera correcta y los 11.640 euros de euskera no van a publicidad sino a *mintza-talde*.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

3148/2016 zenbakidun Dekretua 30,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/7 kreditu-transferentzia. Langileria arlokorako aulkien erosketa.

Decreto nº 3148/2016 por un importe de 30,00 euros. Transferencia de credito 2016/7. Adquisición de sillas para el departamento de Personal.

3229/2016 zenbakidun Dekretua 7.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/8 kreditu-transferentzia. Turismo Bulegoarentzat euskarri grafikoen inprimatze-zerbitzua.

Decreto nº 3229/2016 por un importe de 7.000,00 euros. Transferencia de credito 2016/8. Servicio de impresión de soportes gráficos para la Oficina de Turismo.

3763/2016 zenbakidun Dekretua 11.640,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/9 kreditu-transferentzia. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP, garatzeko egitasmoak martxan jartzea.

Decreto nº 3763/2016 por un importe de 11.640,00 euros. Transferencia de credito 2016/9. Puesta en marcha del Plan de Acciones para la Promoción del Euskera.

**187.- BI DEKRETUREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOAK.**

**187.- DACIÓN DE CUENTA DE DOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Proposamena irakurri ostean, Iñaki Amorrortuk hartu du hitza ondorengoa adierazteko: GUK udal taldeak Lanbideren laguntzak ongi ikusten dituela, eta iaz kolektibo zehatz batzuei behar besteko informazioa ez zitzaiela eman kritikatu du (langabeei, sindikatuei…), eta aurten egoera hori zuzentzeko eskatzen du erreklamaziorik izan ez dadin.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Iñaki Amorrortu para manifestar que a GUK le parcen bien las ayudas de Lanbide y critica que el año pasado no se dio la información suficiente a determinados colectivos como el de parados, sindicatos, etc., y solicita que este año se corrija esta situación para evitar las reclamaciones.

Inazio Uriartek erantzun du aurten programa Langabeen Asanbladan, enpresetan eta abar azaldu dela, eta aurkeztu zaizkien iradokizunak onartu direla. Diru laguntza bere osotasunean estaltzen dela aipatu du.

Inazio Uriarte contesta que este año se ha explicado el programa en la Asamblea de Parados, a empresas, etc., y se han asumido sugerencias que les han presentado. Indica que la subvención se cubre en su totalidad.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

3772/2016 zenbakidun Dekretua 236.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/05 kreditua gaitzea. Kontratazioko laguntzak – Lanbide 2016/2017.

Decreto nº 3772/2016 por un importe de 236.000,00 euros. Habilitación de crédito 2016/05. Ayudas a la contratación – Lanbide 2016/2017.

3886/2016 zenbakidun Dekretua 3.646,24 euroko zenbatekoarekin. 2016/06 kreditua gaitzea. Administrazio-espedienteen digitalizazioa (Lanbide 2016)

Decreto nº 3886/2016 por un importe de 3.646,24 euros. Habilitación de crédito 2016/06. Digitalización de expedientes administrativos (Lanbide 2016).

Jarraian, irailaren 26ko Bozeramaileen Batzordearen adierazpena gai zerrendatik kanpoko puntu gisa sartzeko premia bozkatuko da, eta premia hori aho batez onartu da.

A continuación se procede a votar la urgencia de incorporar como punto fuera del orden del día la declaración de la Junta de Portavoces del día 26 de septiembre, siendo aprobada la urgencia por unanimidad.

Gai-zerrendaz kanpo, larrialdiko deklarazioa aurrez eginda, beraz, "quorum" zegoela erabakita, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 51. artikuluan aurreikusi bezala, ondorengo erabakia sartu da:

Fuera del Orden del Día, previa declaración de urgencia, y por lo tanto, con el "quorum" prevenido en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril, se acordó incluir el siguiente acuerdo:

**188.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA: EMAKUMEEN ETA UMEEN ESPLOTAZIOAREN ETA TRAFIKOAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA (IRAILAREN 23)**

**188.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES SOBRE EL DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA EXPLOTACIÓN Y EL TRÁFICO DE MUJERES, NIÑAS Y NIÑOS. (23 DE SETIEMBRE).**

Akordioaren berri eman da, Bozeramaileen batzordeak hartutako hurrengo adierazpen instituzionalaren jakitun egon.

Dada cuenta del acuerdo quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces:

Pertsonen Trafikoaren aurkako Koalizioaren Mundu Biltzarrak irailaren 23a izendatu zuen "Sexu esplotazioaren eta pertsonen salerosketaren aurkako nazioarteko egun". Emakumeen Biltzarrarekin

La Conferencia Mundial de la Coalición Contra el Tráfico de Personas, instauró el 23 de septiembre como el "Día Internacional contra la explotación sexual y la trata de personas". Lo hizo en coordinación con la Conferencia de

koordinatuta egin zuen hori, Bangladesheko Dhaka hirian 1999ko urtarrilean egin zena.

Mujeres que tuvo lugar en Dhaka, Bangladesh, en enero de 1999.

Pertsonen salerosketa giza eskubideen aurkako eraso larria da, eta zenbait modalitate dauzka: esplotazio sexuala, lan esplotazioa, derrigortutako lanak, organoen trafikoa eta abar. Aldaera horietatik sexu esplotazioari lotutakoa da ugariena, eta biktimarik gehin-gehienak emakumeak eta neskatilak dira.

La trata de personas es un gravísimo atentado contra los derechos humanos que se diversifica en varias modalidades: explotación sexual, explotación laboral, trabajos forzados, tráfico de órganos, etc. De estas variantes, la relacionada con la explotación sexual es la más numerosa, donde la inmensa mayoría de sus víctimas son mujeres y niñas.

Botere publikoen betebeharra da krimena jazartzea eta delitua prebenitzea, baina baita eskaeraren aurka aritzea ere, eztabaidaezina baita eskaerarik gabe ez litzatekeela pertsonen salerosketarik egongo.

Los poderes públicos tienen la obligación de perseguir el crimen y prevenir el delito, pero también de actuar sobre la demanda, pues es indudable que sin demanda no habría este mercadeo de seres humanos.

Gainera, hainbat elkarte eta pertsona arlo honetan egiten ari diren lan eskerga azpimarratu nahi genuke; ziur gaude beraien lana eta ahalegina funtsezkoak direla gizarte justuago bat lortzeko, askatasuna eta berdintasuna oinarri dituena.

Queremos además remarcar el esfuerzo y trabajo que vienen realizando gran número de asociaciones y personas en esta área, con la más absoluta convicción de que su esfuerzo y trabajo es fundamental para la consecución de una sociedad más justa, basada en los principios de libertad e igualdad.

Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du salaketa eta kontzientzia sortzeko kanpainak egiteko, pertsonen salerosketaren arazoaren berri emateko helburuarekin. Gainera, lankidetza eta nazioarteko koordinazio handiagoak eskatuz, horrelako ekintzak zigortzeko, prebenitzeko eta biktimak babesteko dauden neurri eta mekanismoak, bai araugintzakoak bai instituzionalak, erabiliz.

Desde el Ayuntamiento de Getxo nos comprometemos a la realización de campañas de denuncia y concienciación para el conocimiento del problema de la trata. Además se solicita una mayor colaboración y coordinación internacional mediante las medidas y mecanismos normativos e institucionales pertinentes para sancionarla, prevenirla y proteger a las victimas.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

## MOCIONES E INTERPELACIONES

**189.- PP ALDERDIKO UDAL**

**189.- MOCIÓN DEL GRUPO**

**TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: POLIGONO GORRIAN KULTURA AISIAKO ZENTROA SORRARAZTEA.**

Iñaki Gamerok mozioa irakurri du, eta mozio horrek Zubilletako hornidura sozialak hobetu nahi dituela esan du. Lanak hasteko proposatzen den zentroko zirriborro bat erakutsi du, eta talde guztien ideiak jasotzeko irekita daudela adierazi du.

Enrique Pradak, GUK udal taldearen izenean, zuzenketa transakzional bat aurkeztu du proposamenaren hasieran ondorengo puntua sartzeko, irakurri egin duen puntua:

*"LEHENENGOA.- Azterketa egokia burutu baino lehen auzokoei inkesta egitea, batetik, jakiteagatik, zer nolako erabilera nahi luketen zentroari eman lekion, eta bestetik, projektuaren partaide izan litezen".*

Iñaki Gamerok zuzenketa transakzionala onartzen dutela erantzun du.

Koldo Iturbek hartu du hitza, eta proposamena ez dela berria esan du, aurreko urteetan PPk ekimen hori aurkeztu baitu. Getxoko Udala komunikazio eta irisgarritasun egokia duten hiriguneetako kultur azpiegituretan egindako lana nabaria eta garrantzitsua da. Proposamenarekin ez dator bat, eta proposamen horiek zergatik beste auzo batzuetan ez diren egiten galdetu du, Portu Zaharrean, Andra Marin edo beste toki batzuetan. Gobernu Taldeak irisgarritasuna duten zerbitzuak bateratzearen aldeko apustua egiten du, hala proposatu dute beraien hauteskunde programan nahiz aurrekontuetan, eta era horretarako

**MUNICIPAL POPULAR S/CREACIÓN DE UN CENTRO DE OCIO CULTURAL EN EL POLÍGONO ROJO.**

Iñaki Gamero da lectura a la moción y manifiesta que es una moción que pretende mejorar las dotaciones sociales en Zubilleta. Enseña un boceto de centro que se plantea como inicio de trabajo manifestando estar abiertos a las ideas de todos los grupos.

Enrique Prada, en nombre de GUK, presenta una enmienda trasaccional para incorporar al inicio de la propuesta el siguiente punto, al que da lectura:

*"PRIMERO.- Que se haga partícipe a los vecinos y vecinas del barrio en el proyecto realizando una encuesta previa, antes de realizar el estudio correspondiente, para saber qué tipo de uso le darían al centro".*

Iñaki Gamero responde que asumen la enmienda trasaccional.

Koldo Iturbe interviene diciendo que la propuesta no es nueva ya que en años anteriores el PP ha presentado esta iniciativa. Es obvio e importante el esfuerzo del Ayuntamiento de Getxo en infraestructuras culturales que se están ubicando en los centros urbanos que tienen buena comunicación y accesibilidad. No comparte la propuesta y se pregunta por qué estas propuestas no se realizan en otros barrios como pueden ser Portu Zaharra, Andra Mari, etc. El equipo de gobierno apuesta por la unificación de servicios con accesibilidad y así lo han planteado en su programa electoral y en los presupuestos, remitiendo este tipo de

proposamenak aurrekontuaren negoziaziora bideratzen ditu.

propuestas a la negociación presupuestaria.

Jose Luis Landak Koldo Iturbek adierazitakoa babesten du, eta gogorarazi du PSE-EEk zerbitzuen eta ekipamenduen deszentralizazioa defendatu duela kokapenak zehaztu gabe. Proposamena oso zehatza dela iritzi du, eta erreparatu beharreko irizpide orokorragoak daudela uste du.

José Luis Landa apoya lo manifestado por Koldo Iturbe y recuerda que el PSE-EE ha defendido la descentralización de servicios y equipamientos sin concretar ubicaciones. Opina que la propuesta es muy concreta y cree que hay criterios más generales a los que hay que atender.

Enrique Pradak dio GUK udal taldea auzoek baliabide sozial eta kulturalak izatearen alde daudela, eta zentralizatutako zerbitzuak ez dituztela babesten, Romoko Kultur Etxea eta Getxo Antzokia, esaterako. Auzoak dinamizatzearen alde daude zonaldeko auzotarren partaidetzarekin, eta mozioak aurrera egiten badu, ondorengoa eskatzen du: onartzen den proiektuaren gainean zonaldeko auzotarrek ere beraien iritzia eman dezatela.

Enrique Prada manifesta que GUK apoya que los barrios se doten de sustentos sociales y culturales y no defienden servicios centralizados como la Kultur Etxea de Romo y el Getxo Antzokia. Apoyan la dinamización de los barrios con la participación de vecinos y vecinas de la zona y pide que de salir adelante la moción sean los vecinos y vecinas de la zona quienes opinen también sobre el proyecto que se apruebe.

Santiago Sainzek mozioa interesgarria iruditzen zaiola dio, eta ez direla abstenituko; beste batzuetan proposamenak zer kostu duen adieraz dadila eskatzen du eta lurzorua eskuratzeko beste forma batzuk ere baloratu daitezela kostua murrizte aldera; izan ere, azpiegitura batzuek (Romoko Kultur Etxea eta Getxo Antzokia, adibidez), zorpetze handia eragin dute eta zergak igotzea ekarri dute ere, aurten gertatu den moduan.

Santiago Sainz manifiesta que la moción le parece interesante y no se van a abstener y pide que en otras ocasiones se indique también el costo de la propuesta y que se valoren también otras formas de adquisición del suelo para minimizar el costo, ya que infraestructuras como la Kultur Etxea de Romo y el Getxo Antzokia han generado un endeudamiento importante y han motivado también las subidas de impuestos, como la de este año.

Maite Arraizak dio EH Bilduk mozioa babestuko duela auzoetako kultur dinamizazioaren aldeko apustua egiten baitu, baina eskuratu daitezkeen eraikinak dituen beste zonalde batzuk ere ez direla ahaztu behar; gogora ekarri du aurrekontuaren negoziazioan

Maite Arraiza manifiesta que EH Bildu va a apoyar la moción porque apuesta por la dinamización cultural de los barrios pero no se pueden olvidar otras zonas en las que hay también edificios que se pueden adquirir y recuerda que en la negociación presupuestaria

antzeko zerbait proposatu zutela beste puntu batzuetan, baina herritarren partaidetza jasoz.

plantearon algo similar en otros puntos pero incorporando participación ciudadana.

Jose Luis Landak Santiago Sainzek egindako adierazpenak kritikatu ditu, hau da, Romoko Kultur Etxeak eta Getxo Antzokiak zergen igoera ekarri dutela, eta gogora ekarri du zergak nahiz tasak 5 urtez izoztuta izan direla, eta aurten soilik % 0,65 igo dituztela. Romoko Kultur Etxea eta Getxo Antzokia proiektu estrategikoak direla gogorarazi du, eta haiei ez zaiela uko egingo.

José Luis Landa critica las manifestaciones de Santiago Sainz relativas a que la Kultur Etxea de Romo y el Getxo Antzokia han provocado la subida de impuestos y recuerda que han estado los impuestos y tasas congelados 5 años y que este año se han subido únicamente el 0,65%. Recuerda que la Kultur Etxea de Romo y el Getxo Antzokia son proyectos estratégicos a los que no se va a renunciar.

Iñaki Gamerok azpimarratu du PPk egin nahi duena aztertzen hastea dela ikusteko Zubilletako Poligono Gorrian gizarte zentro balio anitz bat jartzeko aukera dagoen inguru horretan zerbitzuak eman ahal ditzan, eta ez dela kultur azpiegitura handi bat. Beste zonalde batzuei dagokienez, antzeko zerbait ezartzea ondo irudiko litzaieke, eta ildo horretatik proposamenak aurkeztu dituzte. Proiektua babesten jarraituko dutela iragarri du, eta gaia aurrekontuetan proposatzen.

Iñaki Gamero insiste en que lo que pretende el PP es iniciar el estudio para ver la posibilidad de dotar al Polígono Rojo de Zubilleta de un centro social polivalente que pueda prestar servicios en ese entorno y que no se trata de una gran infraestructura cultural. Respecto a otras zonas les parecería bien una implantación similar y han presentado propuestas en ese sentido. Anuncia que seguirán apoyando el proyecto y planteando la cuestión en los presupuestos.

Enrique Pradak erantzun du Romoko Kultur Etxeko eta Getxo Antzokiko eztabaidan sartu gabe, aitortzen duela zonalde jakin batzuei zerbitzuak emango dizkietela, zerbitzu horiek beste zonalde batzuetako hornidurekin osatu behar direla uste du, eta horretarako, beharrezkoa dela ildo horretan irizpide bat finkatzea.

Enrique Prada replica que sin entrar en el debate de la Kultur Etxea de Romo y el Getxo Antzokia, que reconoce darán servicios a determinadas zonas, creen que estos servicios deben completarse con dotaciones en otras zonas para lo que es necesario fijar un criterio en este sentido.

Mozioa bozkatu ostean, honako emaitza hau atera da: Aldeko 14 boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta 11 abstentzio (EAJ-PNV eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

"Poligono gorria" deritzona Algortako oso auzo garrantzitsua da. Bertan, udal zerbitzu eta prestazioak behar dituzten herritar ugari bizi dira, udalerriko gainerako auzoetan gertatzen den bezala.

El denominado "Polígono Rojo" es un barrio muy significativo de Algorta en el que viven muchos vecinos y vecinas que necesitan servicios y prestaciones municipales al igual que los diferentes barrios del resto del municipio.

Baina errealitatea hau da: udal zerbitzuen eskaintza dela eta, guztiz baztertuta dago. Ez dezagun ahaztu Zubilleta getxotar ugari bizi diren auzoa dela.

La realidad de dicha zona, es que se haya completamente abandonada en cuanto a dotación de servicios municipales. Zubilletas, no olvidemos, que es un barrio donde viven un importante número de getxotarras.

Alderdi Popularrak uste du gauza hobea merezi dutela, eta auzoari duintasuna eman nahi diogu.

Desde el Partido Popular, creemos que se merecen algo mejor, y queremos que se dignifique este barrio.

Auzokide askoren kexa, ideia, iradokizun eta ekarpen ugari jaso ditugu, eremu hori hobetu dezaketenak. Horietako bat eskaera zaharra da: auzoarentzako aisialdi eta kultura eskaintza sortzea. Zubilletako poligono gorriko eraikinerako, salgai eta abandonatuta dagoena, proiektua proposatu nahi dugu.

Hemos recogido quejas, ideas, sugerencias y muchas aportaciones de vecinos, de cómo podría mejorar dicha zona. Y una de ellas, es una vieja exigencia de crear una dotación ocio-cultural para dicho barrio. Nosotros queremos proponer un proyecto para el edificio que se haya en venta y abandonado en el polígono rojo de Zubilletas.

Proposamen hau bete eta hobe daiteke, gure aldetik, Zubilletako auzokideen aldetik, baita gainerako alderdien eta lagundu nahi duten guztien aldetik ere.

Esta propuesta está abierta, por nuestra parte, a ser completada, y mejorada, tanto por los vecinos de Zubilletas, como por el resto de los partidos, y todos aquellos que quieran colaborar.

Gure ekimenak poligono gorriaren eraikinaren 430 metro karratuak aprobetxatu nahi ditu, egun salgai eta abandonatua dagoena.

Nuestra iniciativa pretende aprovechar los 430 m2 de este edificio del polígono rojo, que en estos momentos se encuentra en venta y en estado de abandono.

PPren proiektua eraikin horretan elementu hauek jartzean datza:

El proyecto del PP consiste en situar en este edificio los siguientes elementos:

- <u>Arretarako udal bulegoa</u> goizeko eta arratsaldeko ordutegiarekin. Bertan,

- Una <u>oficina de atención municipal</u> con horario de mañana y tarde,

auzokideek Udalarekin egin beharreko izapide guztiak egin ahal izango dituzte, hala nola idazkiak erregistratzea, erroldatze bolanteak, ziurtagiriak, zergak helbideratzea, udal informazioa...

Aisialdirako eta gozatzeko gunea, erabiltzaileek leku hori lasai erabili ahal izateko.

- Kultura gunea. Ordenagailu eta irakurketa gela, mota guztietako argitalpenak kontsultatzeko eta internetera WIFI bidez konektatzeko.

- Erabilera anitzeko gelak. Tabike mugikorrak erabiltzeak beste aukera batzuk izatea ahalbidetuko liguke: gutxi gorabehera 40 metro karratuko hiru gela txiki, elkarteak, auzokideak edo kultura taldeak bildu ahal izateko, edo 310 metro karratuko areto handia, bilera handiak, antzezpen txikiak, dantzak, solasaldiak, tertuliak edo konferentziak egiteko.

- Komun publikoak (WC) kanpotik eta barrutik sartzeko, parkearen eta instalazioen erabiltzaile guztiei zerbitzua ematen dietenak. Gizonentzako/emakumeentzako eta premia bereziak dituztenentzako komunak, eta haur-oihalak aldatzeko gunea.

PPtik gainerako alderdiei proposamen hau helarazten diegu. Elkarrekin lan egiten hasteko abiapuntua dela uste dugu. Irekita gaude edozein hobekuntza eta aldaketa egitera, baita auzokideek proiektua osatzen parte hartzera ere.

donde los vecinos puedan realizar todos los trámites necesarios con el Ayuntamiento entre otros, registro de escritos, volantes de empadronamiento, certificados, domiciliación de tributos e información municipal, etc.

-
- Un área de ocio y esparcimiento donde los asistentes, puedan hacer uso de forma distendida de dicha zona.
-
- Un área cultural.Una sala de lectura y ordenadores donde se puedan hacer uso de todo tipo de publicaciones y conectarse vía WIFI a internet.
-
- Salas multiusos. El uso de tabiques móviles nos permitiría disfrutar de diferentes opciones: tres salas pequeñas de 40 m2 aproximadamente para reuniones de asociaciones, vecinos, grupos culturales o un gran salón de 310m2, para reuniones de gran formato, pequeñas representaciones, bailes, coloquios, tertulias o conferencias.
-
- Aseos públicos (WC) con acceso desde la calle y desde el interior, que preste servicio a todos los usuarios del parque y las instalaciones. Se dispondría de aseos femeninos/masculinos, minusválidos y zona para el cambio de pañales.

Desde el partido popular trasladamos esta propuesta al resto de los partidos. Creemos que es un punto de partida, del cual podemos empezar a trabajar conjuntamente. Estamos abiertos a todo tipo de mejoras y cambios, así como a que los vecinos participen en la

elaboración de este proyecto.

Baina nahitaezkoa dela uste dugu poligono gorriari eta Zubilleta osoari hobekuntzez hornitzea.

Pero, lo que sí consideramos imprescindible, es la necesidad de dotar de mejoras al polígono rojo y a todo Zubilletas.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Popularraren udal taldeak ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten du:

Por todo ello el Grupo Municipal de Partido Popular presenta en el pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Azterketa egokia burutu baino lehen auzokoei inkesta egitea, batetik, jakiteagatik, zer nolako erabilera nahi luketen zentroari eman lekion, eta bestetik, projektuaren partaide izan litezen.

PRIMERO.- Que se haga partícipe a los vecinos y vecinas del barrio en el proyecto realizando una encuesta previa, antes de realizar el estudio correspondiente, para saber qué tipo de uso le darían al centro.

BIGARRENA.- Zubilletako poligono gorrian aisialdi eta kultura zentroaren ezarpena aztertzea eta gauzatzea.

SEGUNDO.- Que se estudie, y se lleve a efecto la creación de un centro de ocio y cultural en el polígono rojo, en Zubilletas.

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri emango zaie udalerriko komunikabideei.

TERCERO. Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**190.- GUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: JAIETARAKO MUGIKORTASUN URRIKO EREMUAK PARATZEA.**

**190.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/ HABILITAR ZONAS DE MOVILIDAD REDUCIDA EN FIESTAS.**

Paula Amievak mozioa irakurri du. Kaltetutako kolektiboekin hitz egin dutela esan du, eta eskerrak eman dizkietela mozioa onartu ahal izan delako. Ordaindu beharreko ekitaldietan, Getxo Folken esaterako, prestatutako guneak daude, eta doako ekitaldietara zabaltzeko ere eskatzen du.

Paula Amieva da lectura a la moción. Manifiesta que han hablado con colectivos afectados que les trasladan su agradecimiento a que se pueda aprobar la moción. Reconoce que en eventos de pago como Getxo Folk hay zonas habilitadas y pide que se amplíen también a eventos gratuitos.

Oier Iturraldek irakurri egin duen zuzenketa transakzional bat aurkeztu du:

Oier Iturralde presenta una enmienda trasaccional a la que da lectura:

*"3.- Gurpildun aulkian doazen edo mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzako ez ezik beste ezintasun mota batzuk dituztenentzako ere (gorrak, itsuak…) martxan jarri zitezteen neurriak aztertzea eta ikerketa horien ondorioak udalbltza honetara ekartzea osoko bilkurak onartu ditzan."*

*"3.- Estudio de las medidas que pudieran ponerse en acción tanto en pro de las personas que utilicen sillas de ruedas o bien que tengan reducida su movilidad, como para aquellas otras que padezcan otro tipo de discapacidades, tales como sordera, ceguera, etc.; otrosí, elevar a esta corporación los resultados de tales estudios para su aprobación en sesión plenaria".*

Paula Amievak zuzenketa transakzionala onartu du.

Paula Amieva acepta la enmienda transaccional.

Koldo Iturbek zuzenketa transakzionalean proposatutako ildotik urratsak egingo dituztela aipatu du, baina GUK udal taldearen jatorrizko mozioari dagokionez eta bigarren puntuan adierazitakoari dagokionez, ondorengoa adierazi du: duela 10 urtetik neurri horiek Getxoko Kultur Etxeak hartu zituela, eta ikuskizunetan aulkiak jartzen direnean gurpildun aulkietarako eta haien laguntzaileentzako toki bat prestatzen dela, eta gauza bera aulkirik ez dagoenean ere. Ekitaldi guztietan neurri mota horiek jasotzen dituen autobabeserako plan bat egiten dela gogorarazi du. Jai batzordeek antolatutako ekitaldiak ere era horretako irtenbideetara bideratzen hasi direla esan du, baina oraindik bide asko egiteke dagoela, eta ekitaldi horiek udalak ez dituela antolatzen gogorarazi du.

Koldo Iturbe indica que se van a dar pasos en el sentido planteado en la enmienda transaccional, pero respecto a la moción originaria de GUK y lo indicado en el punto dos manifiesta que desde hace 10 años esas medidas están adoptadas por el Aula de Cultura de Getxo y cuando en los espectáculos se ponen sillas se habilita un lugar para las sillas de ruedas y sus acompañantes y lo mismo cuando no hay sillas. Recuerda que en todos los eventos se realiza un plan de autoprotección que recoge este tipo de medidas. Manifiesta que los actos que organizan las comisiones de fiestas están también orientándose a este tipo de soluciones, pero todavía falta tramo para recorrer y recuerda que dichos actos no los organiza el ayuntamiento.

Paula Amievak Koldo Iturberen hitzak eskertu ditu, baina mozioak jaiei buruz hitz egiten duela gehiago nabarmendu du, haietan udala laguntzailea dela eta gai horietan eragin handiagoa izan dezala eskatzen du, eta neurri horiek ordaintzekoak diren ikuskizunetan bakarrik hartu ez daitezela.

Paula Amieva agradece la intervención de Koldo Iturbe pero insiste que la moción se refiere más a las fiestas y en ellas el ayuntamiento es colaborador y pide que incida más en estas cuestiones y que esas medidas no se adopten sólo en los espectáculos que sean de pago.

Koldo Iturbek GUK udal taldeari

Koldo Iturbe replica a GUK indicando

nahastuta dagoela esan dio, udalaren neurriak ikuskizunak ordaintzekoak edo doakoak diren kontuan hartu gabe ezartzen baitira.

que se confunde ya que las medidas del ayuntamiento se implantan independientemente de que los espectáculos sean o no de pago.

Mozioa bozkatu ostean, honako emaitza hau atera da: Aldeko 14 boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta 11 abstentzio (EAJ-PNV eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

GUK Getxo-k mozio hau aurkezten du Udalbatzari proposatzeko jai eta kirol ekitaldietarako eta udalerriko jaietarako espazio egokiak eskaini daitezen mugikortasun murriztua duten pertsonek, adinekoek edo mendetasuna daukatenek erabili ahal ditzaten.

Desde GUK Getxo, presentamos esta moción para proponer al pleno municipal que se habiliten espacios en eventos festivos, deportivos y en las fiestas patronales del municipio para personas con movilidad reducida, mayores o dependientes.

Ikuspuntu urrun batetik hitz egitea zaila denez gero, egoera hau bertatik bertara bizi izan duen pertsona baten testigantza ekarri nahi dugu hona. Hona hemen Antonio Corbalán Pinarren blogaren zati bat:

Ya que es difícil hablar desde un punto de vista alejado, hemos recurrido al testimonio de una persona a la que le ha ocurrido esto en primera persona. Extracto del Blog de Antonio Corbalán Pinar:

"Denok joaten gara geure inguruko jai eta ekitaldietara. Seguruenik, askotan, beraietan bizi izandako esperientzia gure bizitzaren parte da, eta geure baitan dauden oroitzapen edo ohiturei lotuta dago. Egia esan, desgaitasuna daukan ia inork ezin ditu bere herriko jaiak gozatu eta bizitzako esperientzia interesgarri gisa oroitu, jende pilaketen eta moztutako edo oztopoz betetako kaleen artean sarritan hurbildu ere ezin baitzaitezke egin. Gaur egun, jendea pilatzen den ekitaldiak oso gaizki kudeatzen dira. Baita hiri handietan eta turismorako interesa daukaten jaietan ere. Eta hori arazoa da desgaitasuna daukaten pertsonentzat. Desfileetan, kontzertuetan eta edozein ekitaldi garrantzitsutan, ikusleak leku zehatz

"Todos y todas vamos a las fiestas y eventos de nuestro entorno y seguro que en muchas ocasiones, la experiencia vivida en ellos forma parte de nuestra vida, asociada a recuerdos o costumbres que forman parte de nosotros. La verdad es que, prácticamente para ninguna persona con discapacidad, las fiestas de su ciudad pueden ser disfrutadas y almacenadas como una experiencia de vida o de interés, puesto que ante las aglomeraciones y las calles cortadas o con disminución de paso, hacen muchas veces inviable el mero hecho de acercarte. Actualmente, se gestionan muy mal los eventos con aglomeración de personas. Incluso en ciudades grandes y en fiestas de interés turístico.

bat daukanean eta jaia ikusi egiten denean edo bertan parte hartzen denean, leku estrategiko batzuk egon behar dira, altxatutako plataformak, desgaitasuna daukaten pertsonek (batez ere mugikortasun murriztua, akondroplasia eta abar luze bat dauzkaten pertsonek) jaia gozatu ahal dezaten. Pentsatu gurpildun aulki batean eserita zoaztela eta zuen aurrean hiru ikusle-ilara daudela, eta azken ilarakoak zutik daudela... Zerbait ikus dezakezuela uste duzue? Joango al zineten jai batera zuen seme-alaba txikiekin honelako baldintzetan?"

Y supone un problema para las personas con discapacidad. En los desfiles, en los conciertos y en cualquier evento que se precie, donde el espectador/a ocupa un lugar concreto y la fiesta se contempla o incluso se interactúa con ella, deben existir en lugares estratégicos, plataformas elevadas que permitan que las personas con discapacidad, sobre todo las que tienen una movilidad reducida, acondroplasia y un largo etcétera, puedan disfrutar de la fiesta. Imaginad que vais sentados en una silla de ruedas y hay tres filas de espectadores frente a vosotros, los últimos además de pie... ¿Tendríais la impresión de que podríais simplemente ver algo? ¿Os plantearíais acercaros a ver una fiesta con vuestros hijos e hijas pequeñas en estas condiciones?"

Ekimen honen bidez, gure udalerriko jaiak gozatzeko arazo gehien dituztenei jaiak leku egoki batetik ikusi ahal izateko aukera eman gura diegu, eta ez besteek dituzten baldintzak baino txarragoetan. Izan ere, berdintasunaz eta bazterketa ezaz ari garenean, ez ditugu honelako kolektiboak ahaztu behar.

Con esta iniciativa pretendemos que se facilite que quienes más dificultades tienen para disfrutar de las fiestas de nuestro municipio puedan presenciarlas desde un lugar de privilegio y no en condiciones inferiores al resto. Porque cuando hablamos de igualdad y de la no discriminación, no hay que olvidarse de colectivos como éstos.

Honelako ekimenak proposatu diren udalerrietan, hasiera batean espazioaren erdian tarima bat altxatzea proposatu zen. Baina Udaltzaingoak aukera hori baztertu zuen, segurtasun arrazoiengatik. Izan ere, jende-oldea balego, mugikortasun murritzeko pertsonek zailtasun handiak izango lituzkete plataformatik jaisteko eta lekutik azkar irteteko. Horregatik, desgaitasuna duten ikusleentzako espazio berezi honetarako aukeratzen den lekuak sarbide esklusiboa izango du, behar bezala seinaleztatua,

En aquellos municipios que se ha planteado una iniciativa similar, inicialmente se planteó ubicar una tarima elevada en el centro del ágora, pero esa opción ha sido descartada por la Policía Local por motivos de seguridad, ya que en caso de avalancha las personas con dificultades de movilidad se encontrarían con graves complicaciones para bajar de la plataforma y abandonar rápidamente el lugar. Por ello, la ubicación elegida para este espacio específico para el público con discapacidad tendrá un

teknikari eta artistek agertokira iristeko erabiltzen duten sarrera berean. Leku berezi hau oso hurbil egongo litzateke artistek jardungo luketen plataformatik. Horregatik, arreta berezia jarri beharko litzateke aurrez aurre ez jartzeko, desgaitasuna duten pertsonek ekitaldia ikusteko helburuz lepoa okertu behar ez izateko. Egokiena izango litzateke zona hori albo batean jartzea, bertan dagoen jendeak ikuskizunak erosoago ikusi ahal izateko.

acceso exclusivo y debidamente señalizado por la misma entrada que técnicos y artistas utilizan para llegar hasta el escenario. Ante la cercanía que este "reservado" tendrá a la plataforma donde actuarán los y las artistas, se debería tener especial cuidado de que no esté en frente para que las personas con discapacidad no tengan que forzar su cuello para disfrutar de los eventos. Lo más adecuado sería habilitar esta zona en un lateral para que el público que se encuentre en ella pueda ver con mayor comodidad los espectáculos.

Horregatik guztiagatik, GUK Getxok ondoko ERABAKI PROPOSAMENA ekarri du osoko bilkura honetara:

Por todo esto, GUK Getxo trae a este pleno municipal la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat prestatutako zonak ez dauzkaten udalerriko jaiak eta ekitaldiak aztertzea: kontzertuak, kirol ekimenak, pregoiak, ekitaldi jendetsuak eta abar.

1. Estudio de las festividades y eventos municipales donde no existan zonas habilitadas para personas con movilidad reducida: conciertos, eventos deportivos, pregones, actos con público, etc.

2. Zona bat erreserbatzea eta prestatzea gurpildun aulkian doazen edo mugikortasuna murriztuta duten pertsonek honelako ekitaldiak hobeto ikusi ahal izateko. Era berean, beraien segurtasuna bermatzea eta zerbait gertatzen bada beraien ebakuazioa erraztea. Eremu hau agertokia hesiz inguratzen duen zonaren albo batean egongo da, pertsonen segurtasuna bermatzeko.

2. Habilitar una zona reservada para que las personas en silla de ruedas o con movilidad reducida tengan una mejor visibilidad en este tipo de eventos, al mismo tiempo que se garantiza su seguridad y se facilita su evacuación en caso de producirse algún incidente. Esta área se ubicará en una lateral de la zona vallada que rodea el escenario para mantener la seguridad de estas personas.

3.- Gurpildun aulkian doazen edo mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzako ez ezik beste ezintasun mota batzuk dituztenentzako ere (gorrak, itsuak…) martxan jarri zitezteen neurriak aztertzea eta ikerketa horien ondorioak udalbltza honetara ekartzea osoko bilkurak onartu ditzan.

3.- Estudio de las medidas que pudieran ponerse en acción tanto en pro de las personas que utilicen sillas de ruedas o bien que tengan reducida su movilidad, como para aquellas otras que padezcan otro tipo de discapacidades, tales como sordera, ceguera, etc.; otrosí, elevar a esta corporación los resultados de tales

estudios para su aprobación en sesión plenaria.

Raquel Gonzalezek hitza hartu du PPren aldeko botoa azaltzeko; izan ere, aurrera egin dela aitortuta ere, oraindik lana egiteke dago.

Raquel González interviene explicando el voto favorable del PP porque reconociendo que se han dado avances queda aún trabajo por realizar.

**191.- GUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: 189ALGORTAKO PORTU ZAHARRA BIRGAITZE INTEGRATUKO AREA IZATEKO ESKATU AURRETIK TXOSTEN-AZTERKETA EGITEA KONTRATATZEA.**

**191.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/LA CONTRATACIÓN DEL ESTUDIO-INFORME PREVIO A LA SOLICITUD COMO ÁREA DE REHABILITACIÓN INTEGRADA (ARI) DEL PUERTO VIEJO DE ALGORTA.**

Enrique Pradak mozioa irakurri du. Helburua GUK udal taldea bat datorren osoko bilkuraren konpromisoaren betearazpena finkatzea dela esan du.

Enrique Prada da lectura a la moción. Indica que el objetivo es fijar la ejecución del compromiso plenario que GUK comparte.

Koldo Iturbek erantzun du gobernuko taldea sarritan biltzen dela Portu Zaharreko auzo elkartearekin, biek batera lehentasunak finkatzen dituztela, eta haien artean dagoela ere Birgaitze Integratuko Areari buruzkoa, eta auzo elkarteak dakien moduan, azterketa urte amaierarako edo hurrengo urte hasierarako idatzia egon dadila espero dela.

Koldo Iturbe contesta que el equipo de gobierno se reúne a menudo con la asociación de vecinos del Puerto Viejo y de manera compartida establecen las prioridades entre las que está también la referente al ARI y que tal como conoce la asociación de vecinos se espera que esté redactado el estudio para finales de año o principios del siguiente.

Iñaki Gamerok mozioa babestuko dutela dio, Portu Zaharrak erantzun beharreko premia batzuk baititu. Ez dute argi Birgaitze Integratuko Arearen figura ingurune hori birgaitzeko behar den hobekuntza denik, ezar ditzakeen mugak direla eta, baina aurretiazko azterketa bat denez, mozioa babestu egingo dutela. Azterketa egiten den bitartean, Portu Zaharrari laguntzeko beste era bateko udal neurri batzuk onartu behar direla uste du, esaterako: eraikinak hobetzeko obra lizentziak

Iñaki Gamero manifiesta que van a apoyar la moción ya que el Puerto Viejo tiene unas necesidades a las que responder. No ven claro que la figura del ARI sea la mejora para rehabilitar dicho entorno por las limitaciones que puede imponer pero como se trata de un estudio previo van a apoyar la moción. Opina que mientras se realiza el estudio deben de aprobarse otro tipo de medidas municipales para ayudar al Puerto Viejo como es facilitar las licencias de obras de mejora de los

erraztea; haiek egiteko aholkularitza ematea; obra horiek egiteagatiko tasak eta zergak murriztea, OHZren hobariak… Proposamen horietako batzuk aurkeztu egin ziren, baina gobernuko taldeak baztertu egin zituen EH Bilduren babesarekin.

edificios, asesoramiento para su realización, rebaja de tasas e impuestos por la realización de dichas obras, bonificaciones del IBI, etc., propuestas algunas que se presentaron y que fueron rechazadas por el quipo de gobierno con el apoyo de EH Bildu.

Ibon Rodriguezek aipatu du jakin badakitela Portu Zaharreko auzo elkartea aspalditik ari dela gai hori udalarekin hitz egiten, eta laster egingo dela azterketa, baina mozioa babestu egingo dutela helburu hori lortzeko bultzada bat delako.

Ibon Rodríguez indica que conocen que la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo lleva tiempo tratando este tema con el ayuntamiento y que en breve plazo se va a realizar el estudio pero van a apoyar la moción porque es un empuje a dicho objetivo.

Jose Luis Landak gogora ekarri du zonaldea Birgaitze Integratuko Area izendatzeko azterketak hasteko proposamena iragan legealdian PSE-EEk egindako proposamen batetik sortu zela, eta beharrezko bide bat dela uste du Portu Zaharreko auzotarrengan eta auzo horren birgaitzean pentsatuz.

José Luis Landa recuerda que la propuesta de iniciar los estudios para declarar la zona ARI surgió de una propuesta del PSE-EE en la pasada legislatura y le parece que es un camino necesario para poder pensar en el vecindario del Puerto Viejo y en su rehabilitación.

Enrique Pradak berretsi du mozioak aurretiazko azterketa baten kontratazioa sustatzea bilatzen duela, eta gero erabakiko dela Portu Zaharra Birgaitze Integratuko Area izendatzea komeni den ala ez. Sustatzea garrantzitsua da onartutako mozioa 2014koa baita eta oraindik ez da egin. Udalaren eta Getxoko auzo elkartearen artean hartutako erabakiak irakurri ditu, ondo iruditzen zaiela, baina aurretiazko azterketa egitea beharrezkoa dela iruditzen zaie jarduerei irizpide orokor bat emate aldera.

Enrique Prada se reafirma en que la moción busca impulsar la contratación de un estudio previo y luego se decidirá si conviene declarar el Puerto Viejo como zona ARI. Es importante impulsar ya que la moción aprobada es del año 2014 y aún no se ha realizado. Da lectura a diferentes acuerdos adoptados entre el ayuntamiento y la Asociación de Vecinos de Getxo que le parecen bien pero creen que es necesario realizar el estudio previo para dar un criterio global a las actuaciones.

Mozioa bozkatu ostean, honako emaitza hau atera da: Aldeko 13 boto (PP, GUK, EH Bildu) eta 12 abstentzio (EAJ-PNV, PSE-EE eta Ciudadanos).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu; 12 abstenciones, PNV, PSE-EE, Ciudadanos.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente

moción:

2014ko urtarrilaren 28an Udalbatza honek aho batez erabaki zuen Algortako Portu Zaharra birgaitze integratuko area (BIA) izendatzeko kudeaketak hastea.

El 28 de Enero de 2014 este pleno alcanzó un acuerdo unánime para iniciar las gestiones para la posible consideración del Puerto Viejo de Algorta como A.R.I. (Área de Rehabilitación Integrada).

PSE-EEk aurkeztutako mozio batetik abiatu ginen. Batetik, EAJk azaldu zuen aurretiazko azterlanaren kontua gaineratu zitzaion eta, bestetik, BILDUk egindako proposamena txertatu zen, azterlana bizilagunekin eta auzo elkarteekin egiteari buruzkoa. Horrela, mozioa aho batez onetsi zen, denen artean mozioaren xedapen-zatia adostu ondoren. Honela geratu zen:

Partiendo de una moción presentada por el PSE-EE, a la cual se incorporaron, por un lado, la cuestión del estudio previo expuesta por el PNV, y por el otro, el planteamiento de BILDU sobre que el estudio se realizara con los residentes y Asociaciones de vecinos y vecinas, esta fue aprobada por unanimidad, tras acordar y cerrar entre todos y todas la parte dispositiva de la moción que quedó con el siguiente texto:

1- Getxoko Udalbatzak erabakitzen du Portu Zaharraren birgaitze integrala aztertzea eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren zehaztapenekin bat etorriz.

1- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda estudiar y solicitar al Gobierno Vasco la rehabilitación integral del Puerto Viejo, conforme a las determinaciones del Decreto 317/2002 sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del Patrimonio urbanizado y edificado.

2- Eskaera hori Portu Zaharreko bizilagunekin aztertuko da.

2- Dicha solicitud se estudiará con los vecinos/as del Puerto Viejo.

GUKen ustez, gertaera hau, erabaki hau, izugarri ona da Getxo osoarentzat. Mozio hau aprobetxatu nahi dugu GUKek, Getxoko talde politiko berria den aldetik, onartutako xedapen-terminoekin bat egiteko. Horrela, bada, uste dugu aho batez hartutako erabaki hura indarrean dagoela oraindik ere, are sendoago.

Desde GUK no dudamos en calificar este hecho, este acuerdo, como tremendamente positivo para todo Getxo, y aprovechamos esta moción para que GUK, como nueva agrupación política de Getxo, se una a los términos dispositivos aprobados entonces. Así pues, entendemos que aquel acuerdo unánime sigue vigente, si acaso aún más reforzado.

Portu Zaharra zer den, zer ordezkatzen duen eta nolako balioa duen ez dago

Sobre el qué es, el qué representa, y el valor que tiene el Puerto Viejo, no

azaldu beharrik. Hitzak soberan daude. Baina dituen beharrizanei buruzko hitzak ere soberan daude.

vamos a extendernos. Sobran las palabras. Pero igualmente sobran sobre sus necesidades.

Kontua da denbora igaro dela, eta udalak Portu Zaharreko auzo elkarteko jendearekin batera egin duen lana eta hartutako konpromisoak ezagutzen ditugula. Halere, errealitatea da leku hau, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ondasun kultural kategoriako monumentu-multzo kalifikatu zuena, BIA izendatzeko aurretiazko azterlanaren kudeaketa eta kontratazioa ez direla oraindik egin.

La cuestión es que viendo pasado un tiempo, y como conocedores del trabajo en común del Ayuntamiento con las personas de la Asociación de vecinos y vecinas del Puerto Viejo, y los compromisos adquiridos, la realidad es que la gestión y contratación de este estudio previo para que este enclave, calificado como Conjunto Monumental con Categoría de Bien Cultural por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, sea considerado A.R.I. sigue aun sin materializarse.

Egoera honen aurrean, auzi garrantzitsu honi eta erabaki hari bultzada berri bat emateko helburuarekin, GUK Getxok erabaki proposamen hau aurkeztu gura du, kontratazio honetarako epea finkatzeko helburuz. Uste dugu epe arrazoizko eta onargarria dela urteko azken hiruhileko hau.

Ante esta situación, y con el ánimo de dar nuevo impulso a esta importante cuestión, y a aquel acuerdo, desde GUK Getxo venimos a presentar la siguiente propuesta de acuerdo, con el objetivo de fijar plazo para esta contratación, estimando como razonable y viable este último trimestre del año:

1- Getxoko Udaleko Udalbatzak erabaki du 2016. urte honetan aurretiazko azterlana kontratatzea, Algortako Portu Zaharra birgaitze integratuko area izendatzeko eskaera Eusko Jaurlaritzari egin baino lehen egin beharrekoa.

1- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda contratar durante el año en curso 2016 la realización del estudio previo a la solicitud al Gobierno Vasco para la catalogación del Puerto Viejo de Algorta como Área de Rehabilitación Integrada.

**192.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: URRIAREN 12A, JAI ARROTZA EUSKAL HERRIAN.**

**192.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/12 DE OCTUBRE, FIESTA AJENA EN EUSKAL HERRIA.**

Oier Iturraldek ondorengo mozioa irakurri du:

Oier Iturralde da lectura a la siguiente moción:

Urtero legez, espainiar estatuak bere menpe mantentzen dituen estaturik

Como cada año, el estado español quiere obligarnos a celebrar una fiesta

gabeko nazio eta herriak inposaturiko jai eguna ospatzera behartu nahi gaitu. Urtero legez, *Pilarica* izenez ezagunagoa den inposaketaren ikur den eguna errepikatzera doa espainiar estatu inperialista. Urtero legez, urriaren 12ko eguna agintari eta abertzale espainolak lotsagorrituko ez dituen eguna izango da, nazio eta herriotako biztanleen borondatearen kontra.

impuesta a aquellas naciones y pueblos sin estado que mantiene sometidos. Como cada año, el estado español imperialista vuelve a repetir el día que simboliza la imposición, comúnmente conocido como Pilarica. Como cada año, el 12 de octubre volverá a ser el día que no avergonzará a los mandatarios y nacionalistas españoles, en contra de la voluntad de los ciudadanos de las naciones y pueblos.

Baina urtero legez, ez dute asimilazio politika horretan sakontzea lortuko. Nork galdetu digu euskallangile edota ikasleoi egun zehatz hori ospatu nahi dugun? Zein da urriaren 12a ospakizun izan behar dela babesten dutenen argudioa?

Pero como cada año, no va a conseguir profundizar en esa política de asimilación. ¿Quién nos ha preguntado a nosotros, trabajadores y estudiantes vascos, si queremos celebrar ese día? ¿Cuál es el argumento de los que apoyan la celebración del día 12?

Erantzuna argia da: armen eta izaera espainiarraren indar bidezko inposaketa. Bost mende luze dira espainiar inposaketa hori hasi zela, bortizkeriaren bidez nazio aske haien izaera kultural, sozial zein lingusitikoa ezabatu eta hispanitatearen kultura zapaltzailea ezarri nahian. Eta espainolek eurek inposaturiko jai egun hau izendatzeko erabilitako terminoek ere, agerian uzten dute haien izaera : *Día de la Fiesta Nacional, Día Nacional de España, Fiesta de la Hispanidad, Día de la Madre Patria, Día del Descubrimiento, Día de la Raza ...*

La respuesta es muy clara: la imposición violenta de las armas y de la españolidad. Ya han transcurrido cinco largos siglos desde que empezó la imposición española, que a través de la violencia ha querido imponer la cultura opresora de la hispanidad, eliminando la identidad cultural, social y lingüística da aquellas naciones libres. Y los términos impuestos por los propios españoles para nombrar ese día de fiesta ponen al descubierto su carácter: *Día de la Fiesta Nacional, Día Nacional de España, Fiesta de la Hispanidad, Día de la Madre Patria, Día del Descubrimiento, Día de la Raza ...*

Eta egun horrek bere horretan iraun dezan, eskura dituzten baliabide material zein fisikoak erabili izan dituzte historikoki; gaur egun, oraindik ere, Euskal Herriaren luze- zabalean sakabanaturik dauzkagu Guardia Zibilak, espaniair militarrak edota Espainiar Gobernuko delegaritzak. Inork ez dezan ahaztu Espanian dagoela, haren "yugo" estuaren

Y para que ese día permanezca vigente, históricamente han utilizado todos los medios materiales y físicos que les han sido posibles. Y así, todavía hoy en día siguen desplegados a lo largo y ancho de Euskal Herria la Guardia Civil, los militares españoles y las delegaciones del Gobierno Español. Que nadie olvide que se encuentra en España, ahogado por su estrecho yugo.

itolarrian.

Bada gaur, 2016ko irailaren 28an, Getxoko udalbatza honetan, ozen esango diegu zapalkuntza hori denboran luzatu asmo duten guztiei: ez zaituztegu nahi, ez zaituztegu behar, alde egin ezazue hemendik!

Así, a día de hoy, 28 de septiembre de 2016, en este pleno de Getxo decimos alto y claro a todos aquellos que quieran mantener en el tiempo esa opresión: ¡no os queremos, no os necesitamos, fuera de aquí!

Horregatik honako proposamen hau dakargu, udalbatza honek bere egin eta onar dezan:

Por ello traemos esta proposición, para que este pleno la haga suya y la apruebe:

1. Getxoko Udalak urriaren 12ko jai eguna inposaturiko jai eguna dela ebazten du, getxoztarren borondatearen aurka ezarritako jai eguna delako.

1. El Ayuntamiento de Getxo resuelve que el 12 de octubre es un día festivo impuesto, ya que es un día establecido en contra de la voluntad de los getxotarras.

2. Getxoko Udalak espainiar naziotasuna goratzeko ospa litezkeen bestelako jai egunen ezarpena baztertzen du.

2. El Ayuntamiento de Getxo no permite que se celebre obligatoriamente cualquier otro día festivo que tenga como finalidad ensalzar la nacionalidad española.

3. Getxoko Udalak bere udalerrian kokaturik dagoen Guardia Zibilaren koartelari erabilpen soziala ematea aldarrikatzen du, hartara Guardia Zibila Getxoko udalerritik kanpora joatera gonbidatuz.

3. El Ayuntamiento de Getxo reivindica dar un uso social al cuartel de la Guardia Civil situado en su municipio. De esa forma, se invitará a la Guardia Civil a que abandone el municipio de Getxo.

4. Getxoko Udalak ebazpen honen berri emango dio Espainiar Gobernuaren Euskadiko Delegaritzari, hark ebazpen hau onartu eta betearaz dezan.

4. El Ayuntamiento de Getxo dará cuenta de esta resolución a la Delegación del Gobierno Español en Euskadi, para que dicho organismo lo apruebe y lo cumpla.

5. Getxoko Udalak bere udal komunikabideetan ebazpen honen berri emango du, getxoztarrek haren berri izan dezaten.

5. El Ayuntamiento de Getxo comunicará esta resolución a través de los medios de comunicación municipales, para que los getxotarras queden enterados.

Teresa Escalantek hitza hartu du eta EH Bilduri gogorarazi dio urriaren 12a ospatzeko legezkotasuna langileen

Teresa Escalante interviene recordando a EH Bildu que la legalidad de la celebración del 12 de octubre está en el

estatutuan eta lan araudian jasotzen dela, eta baita guk baliatzen dugun bizikidetza esparruan ere. Ospakizunaren helburua ez da Pilarko Ama Birjina edo beste era bateko ospakizun erlijiosoren bat ondratzea eta, beraz, ez dute mozioa babestuko.

Estatuto de los Trabajadores y en la normativa laboral y también en el marco de convivencia del que nos hemos dotado. La celebración no tiene como objeto la veneración de la Virgen del Pilar o de ningún otro tipo de festividad religiosa, por lo que no van a apoyar la moción.

Paula Amievak EH Bilduri galdetu dio nori galdetu dieten urteko jaiak finkatzeko orduan. Norbera libre da data horiek ospatzeko, eta uste du osoko bilkurari ez dagokiola gai horiek erabakitzea. EH Bilduri galdetu dio nola dakiten herritar gehienek jai hori ez dutela ospatu nahi. Ez du ikusten udalak jaien ospakizuna debekatzeko ahalmenik duenik, eta haien banaketa estatuko eta autonomia erkidegoetako lan araudiak zehazten duela aipatu du, eta EH Bilduri zentzuzkoa iruditzen ez bazaio, haiek aurkara ditzakeela.

Paula Amieva pregunta a EH Bildu a quiénes han preguntado para el establecimiento de las fiestas anuales. Estima que cada uno es libre de celebrar esas fechas o no y cree que no corresponde al Pleno determinar estas cuestioines. Pregunta a EH Bildu cómo es conocedor de que la mayoría de los vecinos no quiere celebrar esta fiesta. No ve que el ayuntamiento pueda prohibir la celebración de las fiestas e indica que la distribución de las fiestas está determinada por la normativa laboral estatal y autonómica y que si a EH Bildu no le parece razonable puede impugnar las mismas.

Susana de Cosek adierazi du urriaren 12an Espainiako Festa Nazionala ospatzen dela lege batean hala arautzen delako. Mozioaren edukia kritikatu du, eta Espainia duela bost mende sendotzen hasi zen errealitate bat dela aipatu du. EH Bilduri gogorarazi dio ez dela denbora asko pasa eskura izan dituzten baliabide material eta fisikoak erabili dituztenetik beren ideiak indarrez inposatzeko. Demokrazian aitortutako hauteskunde nahiz eskubideen joko demokratikoari lotzeko esan dio, eta haien artean dago jai horiek ospatzea edo ez. Guardia Zibilak udalerria uzteko eskaerari dagokionez, “Gran Hermano” saioan ez daudela esan du.

Susana de Cos manifiesta que el 12 de octubre se celebra la fiesta nacional de España porque así viene regulado en una ley. Critica el contenido de la moción e indica que España es una realidad que se empezó a forjar hace cinco siglos. Recuerda a EH Bildu que no hace mucho han utilizado los medios materiales y físicos de que han dispuesto para imponer sus ideas por la fuerza. Le remite al juego democrático de las elecciones y de los derechos que en la democracia se reconocen, entre los que está el celebrar o no las fiestas. Respecto a invitar a la guardia civil a abandonar el municipio indica que no están en gran hermano.

Santiago Sainzek dio mozioa irakurtzean pena handia sentitu zuela,

Santiago Sainz indica que al leer la moción sintió lastima ya que trata de

euskal herritarrak zatitzea bilatzen duen zentzurik gabeko mitologia bat saltzeaz ari baita. Espainiako eta Euskadiko historiak ezin direla bereizita ulertu uste du eta, aldi berean, udalerriaren aniztasun ideologikoa eskatzen du. Aurkako botoa emateko eskatzen du Espainia eraikitzea lortu zuten aurrekoen duintasuna errespetatzearren.

vender una mitología absurda que trata de dividir a los vascos. Cree que la historia de España y Euskadi no puede entenderse separada a la vez que apela a la diversidad ideológica del municipio. Pide que se vote en contra por respeto a la dignidad de los antecesores que ha logrado construir España.

Jose Luis Landak adierazi du urriaren 12a baino jai zaharragoak ospatzen direla, Eguberriak esaterako, eta jai erlijiosoen eta abarren gainean ere eztabaidatu beharko zela. Aisialdiaren zeregin humanizatzailea goraipatuz amaitu du.

Jose Luis landa manifiesta que se celebran fiestas de origen más antiguo que el 12 de octubre como pueden ser las Navidades y que cabría también discutir acerca de las fiestas religiosas, etc. Finaliza realzando la labor humanizadora del ocio.

Paula Amievak hitza hartu du osoko bilkuran dauden Udalbatzako kide batzuek kritikatzeko sare sozialen bidez zabaltzen diren argudioei erantzun izanagatik, zuzena ez den forman gainera. Berretsi du GUK udal taldeak soilik esaten duela gai hori osoko bilkuraren eskumena ez dela.

Paula Amieva interviene para criticar que corporativos presentes en el Pleno contesten a las argumentaciones que se vierten a través de las redes sociales y de forma que además no es correcta. Se ratifica en que GUK únicamente dice que no es competencia del Pleno esta cuestión.

Oier Iturraldek mozioaren balio sinbolikoa azpimarratu du, eta GUK udal taldea kritikatu du ez duelako euskal herritarren alde ezer esan, eta Espainiako legezkotasunari buruz bakarrik aritu dela. Langileen estatutuari egindako erreferentzia ez da gaia, denek baitakite zergatik den festa urriak 12a, eta gogora ekarri du duela 500 urte Gaztelak indarrez egindako inposizio bat egon zela. EH Bilduk herritarren iritzia nola dakien hori galdetu gabe, galdera horri erantzunez, haiek galdetzearen alde daudela esan du baina ez dela onartzen, eta proposatzen duten erabakiaren balio sinbolikoa aipatu du. PPri Fernandez Diaz ministroak esandakoa gogora

Oier Iturralde resalta el valor simbólico de la moción y critica a GUK que nada ha dicho a favor de los vascos y que solo se ha referido a la legalidad española. La referencia al Estatuto de Trabajadores no es el tema, ya que todos saben por qué es fiesta el 12 de octubre y recuerda que hace 500 años hubo una imposición por la fuerza por parte de Castilla. A la cuestión de cómo conoce EH Bildu la opinión de los vecinos sin preguntar le contesta que ellos están de acuerdo en preguntar pero que no se consiente e indica el valor simbólico del acuerdo que proponen. Al PP le recuerda lo dicho por el ministro Fernández Díaz que manifestó que “alguien quiere ganar la

ekarri dio: "Norbaitek duela 40 urte galdutako gerra irabazi nahi du", eta adierazpen horiek lotsagarriak dira.

Paula Amievak erantzun du jaiegunei buruzko kontsulta egitea ondo ikusten dutela, baina ez dutela inoiz esan festaren alde daudenik, eta euskal herritarren alde ez dutela ezer egiten ukatu du. Mozioarekin ez daude ados eta, beraz, aurkako botoa emango dute.

Oier Iturraldek uste du GUK udal taldearen jarrera argia dela, eta ez du onartzen urriaren 12ko festa estatu espainiarrak inposatutako festa bat denik.

Mozioa bozkatu ostean, atzera bota da honako emaitza honekin: EH Bilduren aldeko 4 boto; PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanosen aurkako 12 boto eta EAJ-PNVren 9 abstentzio.

guerra que perdió hace 40 años" y esas manifestaciones son vergonzosas.

Paula Amieva replica que les parece bien que se consulte sobre los días festivos pero en ningún momento que estén a favor de la fiesta y niega que no hagan nada acerca de los vascos y las vascas. No están de acuerdo con la moción, por lo que no votarán a favor.

Oier Iturralde cree que la posición de GUK es clara y no admite que la fiesta del 12 de octubre es una fiesta impuesta por el estado español.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 12 votos en contra, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos; 9 abstenciones, PNV.

**193.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SAKABANAKETARI STOP.**

Nerea Guijarrubiak ondorengo mozioa irakurri du:

Udalbatza honetan eztabaidatu nahi dugu beste behin ere sakabanaketak preso politikoen senide eta lagunengan eragiten duen oinazea. Astez aste adineko gizon-emakumeak, haurrak eta gaixo dauden pertsonak, beste askoren artean, ehundaka kilometro egitera behartuak izaten dira maite duten ama, aita, bikotea, senidea edo laguna ikusi ahal izateko. Milaka kilometro, hamaika ordu amaiezin kontaktu fisiko oro eragotzi egiten duen kristal baten atzean berrogehi minutuz elkar ikusteko.

**193.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/STOP A LA DISPERSIÓN.**

Nerea Guijarrubia da lectura a la siguiente moción:

Queremos trasladar a este pleno una vez más nuestra inquietud por las consecuencias que la dispersión acarrea a los familiares y seres queridos de los/as presos/as politicos/as. Todas las semanas personas de avanzada edad, niños y niñas, personas enfermas se ven obligadas a realizar miles de kilómetros para ver a su familiar, a su aita o a su ama, a su compañero, a su amiga. Miles de kilómetros, horas interminables para poder estar cuarenta minutos tras un cristal que impide la caricia, el roce, un mínimo contacto físico.

Gai hau udalbatzara behin eta berriro ekartzen dugula esango diguzue, eta hala da. Baina giza eskubideen urraketek ez dute amaiera datarik. Egunero, minutu oro, milaka pertsonen eskubideak urratuak izaten dira, sakabanaketa kolektibo zabal baten errepresio makinaren irudi bihurtu delarik.

Nos acusan de traer este tema al pleno de manera reiterada. Es cierto. Pero la vulneración de los derechos de las presas y presos no conoce de tiempos ni parece tener fecha de caducidad. Cada día, cada minuto, se vulneran de manera flagrante los derechos humanos de miles de personas y la carretera de la dispersión se ha convertido ya en el símbolo de la maquinaria de represión contra un colectivo tan amplio.

Iraileko lehenengo asteburuan Guardia Zibilaren ibilgailu batek filmetan ohikoak izaten diren neutralizazio maniobra baten bidez pistolak eskutan harturik Kordoban espetxeraturik dauden presoak bisitatzera zihoan furgoneta gelditu zuen. Gidariak lurrean egon behar izan zuen armaz lepo zeuden poliziek ibilgailua miatzen zuten bitartean. Miaketa birritan egin zuten, tentsio handiko pasadizoa eraginez.

El primer fin de semana de este mes de setiembre una patrulla de la Guardia Civil, tras una maniobra de neutralización de película, obligó a detenerse a punta de pistola a la furgoneta en la que viajaban los familiares de los y las presas que se encuentran encarceladas en Córdoba. El conductor de la furgoneta permaneció en el suelo mientras los agentes registraban el vehículo armados hasta los dientes.

Zoritxarrez, pasarte hau ez da salbuespen bat. Egunero, asteburuoro, tentsio eta arrisku handiko uneak bizi izaten dira errepideetan. Ehundaka lagun behartuak izaten dira udako bero itogarriari, edo neguak eragindako euri eta elurteei aurre egitera. Horiek urduritasunari, nekeari, eta Guardia Zibilaren kontrolek eragindako segurtasun faltari ere egin behar diete aurre.

Hasta en dos ocasiones se produjo el registro viviéndose momentos de gran tensión. No es éste un hecho aislado. Todos los días, sobre todo los fines de semana, se viven momentos de peligro y tensión. Cientos de personas se ven obligadas a pasar horas y horas de viaje, con un calor a veces insoportable en verano, o frío y lluvia en invierno; venciendo al sueño, los nervios, o la inseguridad ante los controles de la Guardia Civil…

Hamarkadak dira Euskal Herriko askatasun prozesuarekin konprometituen dagoen kolektiboarekin amaitzeko asmoz sakabanaketa politikoa martxan jarri zutenetik.

Y así llevamos décadas, desde que se puso en marcha la política de dispersión para castigar e intentar acabar con la disidencia política y con el colectivo más comprometido con el proceso de liberación nacional y social de Euskal Herria.

Aurreko guztiagatik udalbatza honi

Por todo ello solicitamos al pleno:

eskatu nahi diogu:

BAKARRA: Kordoban espetxeraturik dauden senide eta lagunak bisitatzera zihoan furgonetak Guardia Zibilaren partetik sufritu zuen erasoa arbuiatu dezala eta Barne Ministerioari eta dagokionari mendekuan oinarritutako sakabanaketa politika krudelarekin amaitzeko eskatu diezaiola.

PRIMERA Y ÚNICA: rechace el asalto de la Guardia Civil a la furgoneta donde viajaban familiares y amigos/as de los y las presas encarceladas en Córdoba y solicite al Ministerio del Interior y a quien corresponda la necesidad de acabar con la práctica cruel y vengativa de la dispersión.

Koldo Iturbe bere taldeak gai hauetan duen ohiko jarrerari lotu zaio, hau da: giza eskubide guztiak babesteko konpromisoa; estatuari espetxe politika aldatu dezala eskatzea, sakabanaketarekin amaitzea; eta presoei legeak eskaintzen dizkien bide guztiak erabil ditzatela eskatzea beraien egoera hobetze aldera.

Koldo Iturbe se remite a la posición habitual de su grupo en estas cuestiones que es el compromiso con la defensa de todos los derechos humanos, la petición al estado para que cambie la política penitenciaria, finalizando la dispersión y la petición a los presos para que utilicen todas las vías legales para la mejora de su situación.

Susana de Cosek adierazi du mozioa behin eta berriz aurkezten dela, eta PPk gizartearen zati garrantzitsu baten ordezkari modura gogorarazten diola zigorra betetzen dutenak epaituak izan direla, delitu oso larriengatik zigortuak izan direla eta espetxeak bergizarteratzea bilatzen duela. Sakabanaketarekin ETA talde terroristak presoekiko duen kontrola ekidin nahi dela adierazi du, eta politika horri esker, preso batzuk bergizarteratzea lortu dela. Galdetu du, halaber, ETAk hildako pertsonen familiak zenbat emango luketen salatzen dituzten bidaia horiek egin ahal izateko beraien familiekin minutu gutxi batzuetan egotearren. Kordobako Guardia Zibilak izandako jarduerari dagokionez, mozioan aipatzen dena zalantzan jarri gabe, haren gainean zenbait bertsio daudela adierazi du.

